## OSASUN SAILA

## Zk-2822

AGINDUA, 2003ko maiatzaren 5ekoa, Osasun Sailburuarena, Txertaketen Euskadiko Aholku Batzordeko kide bat (Haur-taldekoa) izendatzen duena.

Osasun Sailburuak 2001eko azaroaren 16an emandako Aginduaren bidez, Txertaketen Euskadiko Aholku Batzordeko kideak (Haur-taldekoak) berritu ziren.

Kideen artean, Carmen Gutiérrez Villamayor And.ak aipatutako Batzordeko kargua utziko du, berak eskatuta. Hori horrela, bidezko da bere ordez beste kide bat izendatzea, 1991ko ekainaren 4ko Aginduko 3. eta 4. artikuluek ezarritakoari jarraituz eta abuztuaren 3ko 240/1993 Dekretuko 6. artikulua kontuan izanda.

Beraz, ondokoa,

XEDATU DUT:

***Lehenengo.***– Itziar Pocheville Guruzeta andrea Txertaketen Euskadiko Aholku Batzordeko kide izendatzea, Carmen Gutiérrez Villamayor andrearen ordez.

***Bigarren.***– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera izango du indarra Agindu honek.

Vitoria-Gasteiz, 2003ko maiatzaren 5a.

Osasun sailburua,
GABRIEL M.ª INCLAN IRIBAR.

## DEPARTAMENTO DE SANIDAD

## N°-2822

ORDEN de 5 de mayo de 2003, del Consejero de Sanidad, por la que se nombra un vocal del Comité Asesor de Vacunaciones de Euskadi (Grupo Infantil).

Por Orden de 16 de noviembre de 2001, del Consejero de Sanidad, se renovaron los miembros del Comité Asesor de Vacunaciones de Euskadi (Grupo Infantil).

De entre los vocales, Dña. Carmen Gutiérrez Villamayor va a cesar, a petición propia, como miembro de dicho Comité, por lo que procede realizar su sustitución con un nuevo nombramiento de vocal, de acuerdo con lo dispuesto en los artículos 3 y 4 de la Orden de 4 de junio de 1991, en relación con el artículo 6 del Decreto 240/1993, de 3 de agosto.

En su virtud,

DISPONGO:

***Primero.***– Nombrar, como vocal del Comité Asesor de Vacunaciones de Euskadi, a Dña. Itziar Pocheville Guruzeta, en sustitución de Dña. Carmen Gutiérrez Villamayor.

***Segundo.***– La presente Orden surtirá efectos el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Vitoria-Gasteiz, a 5 de mayo de 2003.

El Consejero De Sanidad,
GABRIEL M.ª INCLÁN IRIBAR.

## GARRAIO ETA HERRI LAN SAILA

## Zk-2823

EBAZPENA, 2003ko apirilaren 29koa, Garraio Azpiegituraren zuzendariarena, «Vitoria-Gasteizko tranbiaren trazadura-proiektua. 1. fasearen ezarpena» jendaurrera ateratzeko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sarearen Lurraldearen Antolamendurako Arloko Planean –2001eko otsailaren 27an eman baitzitzaion behin betiko onespena– Vitoria-Gasteizen «metro arina» izeneko sistema bat jartzea aurreikusten zen, baina trazadura zehaztu gabe utzi zen.

## DEPARTAMENTO DE TRANSPORTES Y OBRAS PÚBLICAS

## N°-2823

RESOLUCIÓN de 29 de abril de 2003, del Director de Infraestructura del Transporte, por la que se somete a información pública el «Proyecto de trazado de un tranvía en Vitoria-Gasteiz. Implantación de la primera fase».

El Plan Territorial Sectorial de la Red Ferroviaria en la Comunidad Autónoma del País Vasco, aprobado definitivamente el 27 de febrero de 2001, contempla la implantación en Vitoria del sistema denominado Metro Ligero, si bien sin una definición concreta de trazado.